

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2025eko ekainak 13 • 1358 zenbakia

ZURE BIDAIA MARRAZTEKO AUKERA

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solaria jorgevega.eibar@gmail.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontizian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturak Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitateak.
Hortz-Esterikan Diplomaturak.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak.
Hortz-Esterikan Diplomaturak.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarraitu gaitzazu!

www.etakitto.eus



@etakitto



Elkarrekin hainbat bidaia egin ondoren, euren esperientzia lagun gehiagorekin partekatu nahi dute Maiderrek eta Ainhoak. Horretarako, Nakama Travel Makers proiektua sortu dute eta dagoeneko zehaztu dute hurrengo bidaia.

eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Jose Luis Gorostegi,

Silbia Hernandez eta Yanire

Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Nakama Travel Makers

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBAR
Udala | Ayuntamiento



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratuzten diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Duela aste batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetak txosnen ordezkariak mezua haizeratu zuten, esaten euren jai eredia arriskuan dagoela administrazio publikoek exigitzen dieten guztiarekin. Ez bakarrik hori, baina bistan da Ticket Bai izeneko fakturazio sistema dela kexuaren iturri nagusienetakoa. Bistan dago ez daudela foru administrazio guztiak klabe berdinean, nahiz eta alderdi beren esku egon. Gipuzkoako diputatu nagusiak garbi utzi du, irabazi asmorik gabeko erakunde direnez, txosnak salbuetsita daudela eta ez duela arazorik ikusten. Bizkaian ere badirudi malgutasunez jokatzeko asmoa dutela, nahiz eta iazko maiatzean zorrotzago agertu zen aldundia. Araban egon daiteke arazorik larriena, iaz ere isunak ezartzen hasi zelako bertako diputazioa sistema ezarri ez zuten hainbat txosnaren kontra.

IÑAKI GALDOS, zutabegilea

Giza ikuspegi batetik, gero eta pertsona okerragoak gara, balore kapitalista eta inperialistak gailendu baitira: individualismoa, diru-gosea, ezjakintasuna, gezurra... Gaur egungo gizarteak ez lituzke 80ko eta 90eko hamarkadetako hiru hilabete jasango. Begira pandemian, pare bat hilabete etxean sartuta eta munduaren amaiera zirudien. Edo duela gutxi bezala, argindarra egun batez joan eta galduak gaude. Askoz ere eskasagoak gara, yankien gero eta antz handiagoa dugu. Garai hartan, sekulako astakeriak egin arren, pertsona hobeak ginen; Internet aroa baino lehen gizartea sanoagoa zen. Orain, hitzmateak ez du baliorik eta lan boluntarioa, sare komunitarioak, harreman zuzenak eta irudimenak ez dute inondik ere lehen zuten indarra. Hori da faltan botatzen dudana.

HARITZ LARRAÑAGA, surfleri eta idazlea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PIKUKA→ Mokoka, pikuarekin borrokan. “Pikuka dabiz oilluak kortan, txindurritz beteta dagolako inguru guztia”.

PIKUKADA→ Oiloak pikuarekin emandako kolpea. “Oillalokiaren pikukadia euki neban arpegixan luzero”.

Hegaztiak pikoan daraman karga, habia egiteko edo kumeei jaten emateko. “Pikukadiagaz dabil harutz eta honutz habixara juan gura ezda, gure agirixan dalako”.

Zentzu figuratuan, otordu arina, kopaua. Gaztelerazko ‘píscolabis’. “Toki-ederrian egin dogu gaur hamarretako pikukadia”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 13
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 14
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 15
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 16
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 17
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 18
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 19
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 20
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2025ean,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Justo Pulido Garcia.
87 urte. 2025-06-04.
- Manoli Gonzalez Gonzalez.
68 urte. 2025-06-05.
- Antonio Ogiza Badaya.
90 urte. 2025-06-06.
- Juan Maria Martinez Sarraoa.
72 urte. 2025-06-08.
- Carmen Ortiz de Zarate Landa.
92 urte. 2025-06-09.



Gidabaimena euskaraz ateratzen duten hiru eibartar sarituko dituzte

Eibarren Akebaik, Eibar Merkataritza Gune Irekiarekin elkarlanean, eta herriko autoeskolen laguntzarekin, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaituzten duten hiru eibartar sarituko ditu, bakoitzari 100 euroko erosketa-bonua emanda. Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Autoeskolen Federakuntzak abian jarri duten *Gidabaimenak euskaraz!* kanpainaren bitartez abiatu dute ekimena eta, azaldu dutenez, eskaera aurkezten duten lehen hiru lagunek jasoko dute saria. Eskaera egiteko baldintza hauek bete behar dira: Eibarren

errolatuta egotea; gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaituztea; eta azterketa teorikoa 2025eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean gaituztea.

Bonua jaso ahal izateko eskaria egiteko, eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi eta agiri hauek aurkeztu behar dira: ikastaroa eta/edo azterketaren matrikula ordaindu izanaren bankuko agiria eta azterketa gaitututa izanaren agiria. Informazio gehiagorako, aipatutako helbidera idatzi, edo 943 708426 / 688 854 965 telefono zenbakietara deitu.

Senegalera bidaltzeko bizikletak jasotzeko kanpaina abiatu du Mikel Porto eibartarrak

Heziketarako bizikletak-Senegal lelopean, erabiltzen ez diren bizikletak jasotzeko kanpaina abiatu du Mikel Porto eibartarrak, BAO-BAB nazioarteko Elkartearekin lankidetzan. Jasotzen dituzten bizikletak Senegalen bizi diren haurrei bidaliko dizkiete, horrela eskola-absentismoa murrizteko. Izan ere, landa-eremuetan bizi diren

umeek 10 kilometro baino gehiago egin behar izaten dituzte, oinez, eskolara joateko eta, sarritan, ez dira joaten. Seguruenik udazkenera arte ez dituzte bizikletak itsasontzian bidaliko, baina norbaitek bizikleta oparitu nahi badu, mikelporto7127@gmail.com helbidera idatzi edo 610340241 telefonora deitu dezake.



Etxera Egunean egingo den bazkarirako txartelak salgai ipini dituzte

Txosnetan Sanjuanetarako antolatutako egitarauaren barruan, ekainaren 21ean (zapatua) Etxera Eguna ospatuko da eta, besteak beste, herri-bazkaria egingo dute, Bizimiñaren eskutik. Preso, iheslari eta deportatuen aldeko bazkaria 14:30ean hasiko da, eta bazkalosteian Elkartasun Bingo egingo dute. Bazkarirako tiketak eskuratzeko, eguenetan 19:30etik 20:00etara Untzagan egiten den kontzentrazioa joan daiteke edo, bestela, WhatsApp bitartez erosteko aukera ere badago, hiru zenbakietako batera mezua bidalita: 623063547 (Ibon), 675712886 (Irene) edo 688613966 (Garazi).

Aurreko astean eman zuten eza-gutuzera Sanjuanetarako prestatu duten egitaraua Jaixak Herrixak Herrixandako jai-batzordekoek, eta egitarauri jarraituz, ekainaren 21ean izango da txosnak zabaltzeko ekitaldia, 12:30ean. Jarraian, bazkaria hasi arte, marianito-pintxada egingo da.



Astelehenerako manifestazioa deitu dute pentsiodunek

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak manifestazioak deitu ditu astelehenerako, eta Eibarkoa 12:00etan hasiko da, Untzagan. Aldarrikapen nagusia gutxieneko pentsioa Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) parekatzea izango da, Eusko Jaurlaritzan maiztzean aurkeztu zuten Herri Ekimen Legegilean jasotzen den bezala. Gogora ekarri dutenez, “proposamen

horrek lehen fasea, hau da, izapidetzeko onarpena gainditu du, eta orain alderdi politikoen akordioaren zain gaude, gure proposamena aurkeztu eta Legebiltzarrean eztabaidatu eta bozka dadin. Bilera bat ere eskatu dugu Pradales lehendakariarekin eta Mikel Torres lehendakariordearekin”. Proposamenari babesa ematen dioten 145.142 sinadura entregatu zituzten arren, Gas-

teizen agintzen duten alderdiek ez dutela ezer esaten salatu dute, “eta horrek pentsarazten digu mobilizazioak funtsezkoak eta beharrezkoak izaten jarraitzen dutela. Azken fase hau arrakastaz burutzeko, mobilizazio hauek HEL-aren helburua dute, hau da, 150.000 pertsonaren prekaritate-egoera desagertzea lortu arte amaituko ez den sentibilizazio-kanpaina batekin batera deitu dira”. Herritar guztiak deitu dituzte manifestaziora. Horren ostean bertan behera lagako dituzte astelehenetako elkarretaratzeak, irailaren 15ean bueltatzeko.



ELGETAN

- Enpresako BISITAK edota langileentzako LANDETXEA.
- GOSARIA barne, LOGELA zabalak eta izugarritzko BISTAK.
- Lasaitasuna eta diskrezioa.

B&B Eguzkitza

HARREMANETAN JARTZEKO:
688 615 600
www.eguzkitzaetxea.eus









Altzoa alargunen elkartekoekin batera puntua egiteko aukera egongo da bihar

Kalean Ehuntzeko Munduko Egunaren harira, bihar goizean Eibarko Bizikleta Plazan egongo dira Altzoa alargunen elkartekoak, 11:00etatik 13:30era. Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin duen *Kaleak gureak* dira ekimenari lotuta, *Matatzak indarkeria sexistaren aurka* izenekoaren egingo da bihar hainbat herritan, eta gurean Altzoa arduratuko da jardueraz. Puntua egiteko behar den materiala elkartekoekin ipiniko dute eskuragarri, nahi duenak bat egiteko aukera izan dezan. Altzoa elkartekoekin herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte *Jar diezaiozun #puntuetakitto indarkeria sexistari* egitasmoarekin bat egitera.

Bete-betean sartu gara udako denboraldian

Aurreko zapatuan zabaldu zituzten kanpoko udal-igerilekuak, eta ur-txorrotak ere dagoeneko martxan daude. Instalazio hauek irailaren 28ra arte egongo dira funtzionamenduan. Eta kanpoko igerilekuetako tabernak ere aste honetan inauguratu du udako denboraldia. Hau izango da ordutegia: ekainaren 9tik uztailaren 31ra arte, 11:00etatik 20:30era; abuztuaren 1etik 31ra, 11:00etatik 20:00etara; eta, irailaren 1etik 28ra bitartean, 11:00etatik 19:00etara. Igerilekuak irailaren 29ra arte egongo dira zabalik.



Mekatronikan eta Mekanizazioan enplegua sustatzeko formakuntza-programa abian

Udaleko Ekonomiaren Garapen, Enplegu eta Berrikuntza Sailak enplegua sustatzeko prestakuntza-programa berri bat jarriko du abian, herrian erroldatuta, langabezian edo lan prekarioa duten eta Lanbiden izena emanda daudenentzat. Programa Mekatronika industrialean eta Mekanizazioaren arloko prestakuntzan zentratzen da, eta Armeria Eskola Elkarteak emango du. Hamabost pertsonak hartu ahal izango dute parte. Uztailetik urrira izango da. Parte hartzeko eskaerak ekainaren 27ra arte egin daitezke, aurrez aurre (Pegora

Herritarrentzako Zerbitzu Bulegoan), edo modu elektronikoan, www.eibar.eus udal web orriaren bidez.

Interesdunak programan parte hartzeko eskaera aurkeztu beharko dute (Pegoran eta www.eibar.eus webgunean daude eskuragarri), baita eskatzailearen NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia, Lanbide egindako inskripzioaldien txostena, bizitza laborala eta “curriculum vitae” eguneratua ere. Informazio gehiagorako 633909388 telefonora deitu (Malen).



Merkataritza Ganberak banatzen duen '10 Bitxiak' saria jaso du Twins arropa dendak

Bidebarrieta kaleko Twins saltokiak Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren 10 Bitxiak sarietako bat eskuratu du, hain zuzen ere Debarrena eskualdeari dagokion bitxia. Aurreko barixakuan egin zen Gipuzkoako Merkataritza Enpresa Sarien ekitaldiaren barruan, Merkataritza Bazkondeak Gipuzkoako hamar saltoki saritu zituen, eta han jaso zuten diploma Eibarko arropa dendako ordezkariak. Merkataritza Ganberak Gipuzkoak tokian tokiko merkataritzarekiko duen konpromisoaren garrantzia azpimarratu zuen eta, era berean, tokiko merkataritzak lurraldearekiko duen konpromisoa nabarmendu zuen ekitaldian.

Urkiko jaietako zozketako irabazle asko ez dira oraindik agertu

Urkiko jaietan kirol kamiseten zozketa egin zuten eta, jai batzordetik esan digutenez, oraindik hainbat sari daude jasotzeko. Hauek dira zenbaki irabazleak eta ordezkioak: SD Eibar 937 (1928); Erreal 2544 (2506); Athletic 13 (1843); Real Madrid 642 (2370); Eibar Rugby 2505 (535); CD Urki 1933 (1931); Eibartarrak FT 2564 (2349); Aspe Pelota 1929 (927); Eibar Eskubaloia 801 (623); Eibar Saskibaloia 2547 (930); Eibar Igerixan 1730 (2325); Urbat Eibar Waterpolo 1930 (2330); Ipurua Gimnasia Erritmika 2572 (2013); eta Judo Kalamua 1604 (2413). Sariak jasotzeko, jai batzordearekin harremanetan jarri edo, bestela, auzoko tabernetan abisua eman.



Avanza autobus enpresako langileek greba mugagabea hasiko dute bihar

Lan baldintza hobeak eskatzeko lanuzteak asteburuoro egingo dituzte, zapatueta eta domeketan, eta zehaztu bezain laster emango da gutxieneko zerbitzuen berri. Edozein modutan ere, gutxieneko autobus zerbitzua emango da. Avanzaren webgunean eman duten informazioaren arabera, “egun horietarako erositako txartelak dituzten erabiltzaileak, deial-

diaren eraginpean badaude eta joan-etorria bertan behera utzi nahi badute, ohiko kanalen bidez egin dezakete”.

ELA sindikatuak adierazi duenez, azken protesten ondoren, enpresak ez du keinu bat bera ere egin langileekin harremanetan jartzeko. Gainera, Gipuzkoako Diputazioak ere gatazkan zeresan handia duela diote.

Denek isilarazten duten gerrari argazki bidez ahotsa ematen

Egoaizia Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen (GGKE) eskutik “BUNA: Isiltasun osteko ahotsak” izenburuko erakusketa ikus daiteke Arrate Kultur Elkartean. Aurreko asteaz geroztik Topalekun zabalik dagoen erakusketa ekainaren 27ra arte bisitatu daiteke, 18:00etatik 20:00etara astelehenetik barixakura bitartean, eta 10:00etatik 14:00etara zapatuetan.



BIDEOA ikusteko eskaneatu QR kodea



Eibarko GGKE-ak aurten 25 urte bete dituela eta antolatutako Etiopiako erreallitate gordina argazkien bidez islatzen duen erakusketa. Aurreko egunean izan zen inaugurazioa, eta Eibarko zein kanpotik etorritako jende ugari elkartu zen bertan.

Erakusketa zabaltzeko ekitaldia berezia izatea nahi zuten Egoaiziako kideek, baita lortu ere. Haste-ko, Etiopiatik kanpora lehen aldiz bidaiatu duen Kunom Hailu, Etiopian eibartarrekin batera lan-kidetzan aritzen den 4YBIN erakundeko zuzendaria, bertan egotea lortu zuten, eta berak azaldu zion jendeari erakusketako irudietan ikusten dena. Ingeleseztik, bere ahotik zuzenean, 2020ko azaroaz geroztik Etiopiako iparraldean dagoen Tigray eskualdean bizi duten gerraren alderik gordinena ezagutzeko aukera eman zuen itzultza-

le baten laguntzarekin egin zuen bisita gidatua.

Jarraian, goiko pisan, Iñaki de Luisek Etiopian Egoaiziako kideekin grabatutako dokumental laburraren proiektzioa egin zen, eta jarraian zuzendariarekin solasaldirako tarte egon zen. Horrelako toki batean grabatzeko zailtasunak, egoera oso larrian daudenei ahotsa emateak sortzen dituen sentimenduak eta beste hamaika gauza kontatu zituen LuzNorte Films-ek ekoiztutako film laburraren zuzendariak. Eta, amaitzeko, Etiopiako janari tipikoa probatzeko aukera izan zuen jendeak, Ethiopia-z Donostiko jatetxeko eskutik. Gainera, bertako emakume tigrinyar baten eskutik Etiopian garrantzi handia duen kafezeremonia tradizionala bertatik bertara ezagutzeko aukera paregabea izan zuten bertaratutako guztiek. Egoaiziako kideek diote-

**Tigray-ko gerran
600.000 pertsona
baino gehiago
hil dituzte, eta
120.000 emakumek
sexu-indarkeria
sistematikoa
pairatu dute**



nez, “erakusketaren inaugurazioa une hunkigarria izan zen, entzutea, elkartzea eta konpromisoa ardatz izan zituen ekitaldia”.

Kunom Hailuren berbetan, bere lurraldean bizi duten gerran 600.000 lagun baino gehiago hil dituzte, eta 120.000 emakume eta neskato inguruk sexu-indarkeria sistematikoa pairatu dute. Blokeo militarrek, lehortek eta goseteak areagotu duten krisi humanitarioa, baina, guztiz ikusezina da munduarentzat, arreta mediatikotik guztiz kanpora dago eta.

Laguntza ematen lehenak

Egoera horren aurrean, Egoaizia GGKE eibartarra izan da lehene-tarikoa eskualdean laguntza humanitarioa ematen. Hasieratik tokiko erakundeekin lankidetzan aritu da, elikagaiak, haziak, abereak eta tresna agronomikoak banatuz, baita laguntza psikosoziala ere, batez



ere sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin. “Buna” izeneko tokiko kafearen errituala espazio terapeutiko bilakatu da, emakumeek beren mina partekatu, loturak berreraiki eta kolektiboki sendatzeko aukera izan dezaten.

Erakusketak 30 argazki jasotzen ditu, euskaraz eta gazteleraz idatzitako testuekin lagunduta. Irudiak Ximena Borrazas, Edgar Gutierrez eta Iñaki Luis fotokazetariak

egin dituzte. Egoaiziako kideen berbetan, “gatazka, migrazio eta gatazken osteko testuinguruetan esperientzia handiko profesionalak dira hirurak. Beraien lanak National Geographic, The Guardian, Le Monde, BBC edo El País bezalako komunikabideetan argitaratu dira, eta euren begirada konprometitua testuinguruaren gogortasuna zein protagonista diren emakumeen duintasuna erakusten ditu”.

Hasi gara sanjuanetarako motorrak berotzen!

Aurretik daukagun asteburua era guztietako ekitaldiz beteta dator, baina atzean laga duguna ere halakoa izan zen: Astelena frontoiak barixakuan hartu zuen Boxeo Gauda, zapatu goizean ia mila lagun elkartu zituen Minbiziaren Aurkako Martxa, iluntzean Ibarkurutzeko iturriaren inguruan egin zen Poesia eta Musika Gauda, eta gauean Untzaga plaza gaztez gainezka egotea lortu zuen Oscar Martinez DJ-aren saioa. Sanjuanetarako beroketak hasi besterik ez dira egin!

ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA.

Argazki gehiago
elkartaren webgunean:





Abentura eta dibertsiozko bidaiak

Txiki-txikitatik ezagutzen dute elkar Maider Otaola Lopez eta Ainhoa Ugarte Zuloagak eta, demaseko adiskidetasunaz gain, pasio berak elkartzen ditu: bidaiatzea. Munduko hainbat tokitan egon dira elkarrekin eta, orain, euren zaletasuna beste bidaiari batzuekin partekatu nahi dute. Gainera, eurentzat oso berezia den toki batean hasiko dute abentura: Panaman.

Lagunak baino familia dira Maider eta Ainhoa, “familia aukeratua”, eta, hain zuzen ere, hortik doa jatorri japoniarra duen Nakama hitzaren esanahia. Harreman estu horrek elkarrekin bidaiatzera eraman ditu hainbat alditan, eta euren bizitzan mugarrria izan zen bidaia ere elkarrekin egin zuten. “Pandemiaren ondoren, 2021eko uztaillean, motxila hartu eta Erdialdeko Amerikara joan ginen elkarrekin. Urtebeteko bidaia egin nahi genuen eta Panamatik Mexikora autobusean joan ginen. Panaman 2-3 hilabete pasa genituen eta herrialdeak modu berezia lotu gintuen, behin baino gehiagotan itzuliz”, azaldu digu Maiderrek. “Bidaia hartan etxea ere izan zen guretzat”, zehazten du Ainhoak.

Herrialdearekin eta bertako bizilagunekin harreman berezia sortu zuen bikoteak, eta Maider denbora batez bizi izan da bertan. “Sorpre-



sa eraman genuen Panamarekin. Han hasi genuen bidaia, beste herrialdeetan sartzeari zailagoa zelako pandemiagatik, baina ez genekien gauza asko herrialdeari buruz. Demaseko sorpresa izan zen. Costa Rica moduko herrialdea da, baina ez du horrenbeste jendek ezagutzen eta denetik dauka: Karibe itsasoa eta Ozeano Barea, barnealdea oso polita da, gastronomia izugarria dauka... Bat-bateko maitemina sentitu genuen”, diosku Ainhoak.

Lehen helmuga: Panama

Nakama proiektuarekin, elkarrekin bidaiatzen jarraitzeaz gain, euren esperientzia eta bidaiatzeko pasioa beste batzuekin partekatu nahi du bikoteak. Horregatik, Nakamarekin lehen bidaia egiteko argi zuten nora joan: Panamara. Lehen bidaia uztailaren 28tik abuztuaren 10era egingo dute. Data horretarako taldea osatu dute, baina oraindik badago izena



Itsasoarekin harremana duten bidaiak egitea maite dute Maider eta Ainhoa Nakama Travel Makers proiektuaren sortzaileek. NAKAMA

emateko epea (nakamatravelmakers.com helbidean eman daiteke izena edo WhatsApp 662 11 74 36 zenbakira mezua bidaliz). Eta ez hori bakarrik, abuztuaren 14tik 27ra bidaia bera egiteko beste talde bat sortzen ari baitira, baina oraindik ez dute taldea osatu. Beraz, hor ere eman daiteke izena.

Bidaiariek euren kabuz bidaia-tu beharko dute Panama Hirira (Ainhoa eta Maiderren aholkuek lagunduta), eta bertan elkartuko dira beste bidaiariekin eta eurekin, abenturari hasiera emateko. “Panamako hiru puntu ezagutuko ditugu: Karibe ingurua, Ozeano Bareko kostaldea eta Panama Hiria”, aurreratu digu Maiderrek.

Panama Hirian herrialdearen historia ezagutuko dute. “Oso historia zirrargarria du”, Ainhoaren ustez. Gainera, Panamako Kanala nabigatuko dute. Handik Karibera joko dute. “Karibe inguruak oso historia potentia du, bai kultura,

>>> Bidaiatzea asko maite duten Maider Otaolak eta Ainhoa Ugartek Nakama Travel Makers proiektua jarri dute martxan

>>> Ohiko bidaietan aurkitzen ez diren esperientziak bizitzeko bidaiak antolatzen dituzte, taldean egiteko

bai musika aldetik. Kongo kultura dago han eta kultura horretan murgilduko gara. Gainera, bertako gida batekin oihan sakonean ibiliko gara eta gaua pasatuko dugu bertan. Sorpresak ere egongo dira, baina ezin ditugu aurreratu”, Maiderren berbetan.

Karibetik beste kostaldera abiatuko dira, Ozeano Barera, eta ure-

tako ekintzak egingo dituzte bertan: surfa, urpekaritza eta kayak. “Gainera, sasoi horretan euria egiten badu ere, proposa da baleak ikusteko. Demaseko esperientzia da baleak itsasontzitik edo hondartzatik ikustea, eta urpekari-tza egiten ere entzun daitezke!”, diosku bikoteak. Eta, amaitzeko, Panama Hirira itzuliko dira azken



Uztaila eta abuztua sasoi aproposa izaten da Panaman baleak ikusi ahal izateko. NAKAMA

>>> Lehen bidaia Panamara egingo dute uda honetan, baina dagoeneko badituzte beste helmuga batzuk buruan

>>> Abenturazaleentzako bidaiak izango diren arren, bidaiariak lasai joan daitezkeela esan digute, dena kontrolpean izango dutelako

eguna pasatzera. “Abentura-bidaia izango da, ez da eroso izango, ez da atsedena hartzeko bidaia, ez gara bost izarretako hoteletara joango, euria egingo digu, baina oihanean egingo digu lo, hango kultura bertatik bertara ezagutuko digu, ekintza dibertigarriak egingo ditugu... Hau da, abenturari plus bat ematen dioten ekintzak

egingo ditugunez, agian ez da eroso izango, baina dena antolatuta edukiko digu eta bidaiariak lasai joan daitezke gurekin”, azaldu digu bikoteak.

Esperientziak bizitzea

Nakama ez da ohiko bidaia-agenta, Ainhua eta Maider esperientzia diseinatzaileak dira. “Ohiko

ibilbideetatik irteten gara. Bidaia-liburuetan aurkitzen diren puntuak ezagutzen ditugu, baina gure ibilbideetako puntuak, bisitatzen ditugun tokiak edo egiten ditugun ekintzak benetan gure gustokoak dira. Hainbeste bidaiatu eta gero, toki sekretu edota berezietara joatea proposatzen digu”, diosku Maiderrek.

Nakamak bidaiatzeko bi aukera eskaintzen ditu: taldeko bidaiak eta neurrira egindako bidaiak. “Lehenengo aukerarekin, lagunekin bidaiatzea bezala izatea nahi dugu. Asko gustatzen zaigu laguntasuna transmititzea, nola bidaiatzen dugun ikustea, toki bereziak nola aurkitzen ditugun, nola saiatzen garen tokian tokiko jendearekin ahalik eta traturik handiena edukitzea... Azkenean bidaia jendeak egiten du, bai bidaiatuko duen taldeak, bai herrialdeko bizilagunek. Eurek egiten dute esperientzia aberasgarriagoa izatea”, diosku Ainhua.

Bikoteak dioen bezala, taldeko bidaia hauek esperientzia berriak bizitzeko helburua duten lagunentzat, abenturazaleentzat, sorpresak gustoko dituztenentzat eta pertsona aktiboentzat dira. “Gurutzat ezinbestekoa da bidaia dibertigarria izatea”, azpimarratzen du Mainerrek. “Tokiak ezagutzea bai, baina kontua da etxera itzultzean lagunekin bizi izan dituzun istorioak eta bidaietan beti pasatzen diren momentu bereziak eramatea”.

Abentura berba ere azpimarratzen du bikoteak. “Goazen tokira goazela, abenturak bizi nahi ditugu. Adibidez, itsasoa beti egongo da gure bidaietan”, Mainerren berbetan. “Turismoa egitea baino, esperientziak bizitzea da kontua, ohiko bidaietan aurkituko ez dituzun gauza horiek egitea”, zehazten du Ainhoak. “Ez da behar aurre ezagutzarik edo horrelakorik; gogo besterik ez!”.

Panamako bidaia Nakamaren hasiera besterik ez da izango eta bidaia asko egiteko gogoz dago bikotea. Horrela, eta mundua ondo ezagutzen dutela jakinik, badituzte buruan beste helmuga batzuk, eta Panamakoa pasa ondoren ez da harritzekoa izango abentura berrien inguruko albisteak ematea. “Urtebetez bidaiatzen ibili ginen hartan herrialde gehiago ezagutu genituen eta badugu buruan horietakoren batera bidaia antolatzeari. Ez dugu esango nora, baina bi pista emango ditugu: gure bidaietan beti egongo dira urpekari-tza eta dantza. Panama inguruan dagoen herrialde batera joateko



Elkarrekin bidaiatzea maite dute Ainhoak eta Mainerrek. NAKAMA

asmoa dugu, ea Gabonetan egin dezakegun, sasoi polita da-eta”, aurreratu digu Ainhoak. Euren eskutik munduan dantzan ibili zaitezkeite lasai askoan. Eta bestela, bidaiatzeko gogo baduzue, baina ez badakizue nondik hasi, zuen gogoen berri eurei eman eta bidaia neurrira antolatuko dizuete.

BIDEOA





osasun gida

Dentistak

Odontologia Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

arat.
HORTZ KLINIKA - CLÍNICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20000 Eibar
943 201 651
www.aratklinika.com

@arat_klinika



EIBAR • HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua

Nº 15.028

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 075 - 688 884 808
info@eibarcinica dental.com
www.eibarcinica dental.com



BISTA·EDER

Hortz Klinika - Clínica Dental

30 urte irribarreak eraldatzen.
Berrituak zu hobeto zaituzke.

**INPLANTOLOGIA &
ORTODONTZIA AURRERATUA**

Bista Eder, 19 Tel. 943 700 082 info@bistaeder.es

Kalegiala, 10a, 2000103

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fernán Calbetón 91 - 1. esk. Eibar
943 20 72 17 | 680 43 29 08
amaia@amaiaodontologia.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PAOI
Ortodontzia / Inplanteak / laser teknologia



IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Thoa, 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN**

ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-702896



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5. 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutas



ANE MENDIA

943 20 72 17

- FISIOTERAPIA
- KIRO, LESIOAK
- Puntzioa eta TRITURACIOAK
- K-stretch + DEPRESIONES

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura
Martinez



Dr. Alejandro
Recas

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com



943-206776



osasun gida

Medikuntza Estetikoa



abontza
clínica estética

Medikuntza	Kirurgia
• Dermatologia estetiko • Aurrepegi gaitetza • Botoxak	• Botoxak, belarriak... • Liposukzioak • Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behe 943 206 044

ANE VESGA
CLINICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatuak

Arragueta 2bis B, Entrepanta A
623 003 251 info@draanesvesga.com
WWW.DRAANESVESGA.COM



Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 23413

Plaza Barria 2. 2º. Tel: 943 201 841
www.clinicarecalde.com



Podologoak



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kalegatu zbkia.)
Rosario Rodríguez (125 Kalegatu zbkia.)
Amagola Zubizarreta (122 Kalegatu zbkia.)



PODOLOGOA

**Maidor
Lopez
Etcheberria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kalegatu zbkia.

Psikologoak

GONZALEZ DE MENDIBIL

**PSIKOLOGIA
PSIKOTERAPIA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENGANAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Ψ Oscar Monragon Lili
GOIETZ ETX. ARRAZALDEZ

Urkitzu, 13 - behe
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776



DAVID KARBA

Free energy

Ekainak 9, astelehena, goizeko 9:37: orain dela egun batzuk hemen idazteko proposamena jaso nuela gogoratzen dut. “Burua zuri daukat orain bertan, baina okurrituko zait zerbait”.

9:34: Lanean nago, baina tarteka lerro batzuk idatzi ditzaket. Momentu horretan, aurreko zapatuan 17. Andoaingo Rock Jaialdian ezagutu nuen Dummy talde kaliforniarraren ‘Free energy’ diskoa entzuten da bluetooth bozgorailuan.

9:56: Burua Nafarroa Plazan daukat, flipatu egiten baitut jendez lepo zegoela gogoratzerakoan. Kontzertu guztietan ikusten dituzun aurpegi ezagun asko, koadrodun alkandorak, Pixies eta Sonic Youth taldeen kamiseta guapoak, eszenatoki gainean gertatzen zena arreta handiz jarraitzen zuten gizon eta emakume despistatuak, balkoian dantza egiten zuen bat edo beste, seme-alabak gainean zeramatzatzen gurasoak (belarrietarako kaskoak euren burutxoak baino handiagoak ziren, eta horrek irribarrea sorrarazten dit beti)... Hori da herriarentzat egiten den doako jaialdi baten laburpen perfektua. Txosnak ikustea besterik ez zegoen. Bertan, herrian aldaketak

“Zoragarria izango litzateke Untzagan doako jaialdia egitea Euskal Herriko, estatuko eta nazioarteko taldeekin, eta bizilagunak horregatik ez eskandalizatzea”



eragin nahi dituen 16 urteko neska eta horrelako ekintzetan urte askoan militatu duen amama batzen ziren. Hain zuzen ere, 17 urte daramatza jaialdi horrek.

Niretzat aurtengoa izan da lehen aldia. Sasoi honetan beti dago gauza asko eta aukeratu beharra dago. Oraingoan ere ez da erraza izan, beste momenturen batean joateko zalantzarik izango ez nukeen beste lau ekitaldi zeudelako, baina ondo aukeratu nuela uste dut. Pena izan zen goizeko kontzertuetara ez iristea, Lukiek eta Marte Lasarte bezalako taldeek jo zutelako. Hori bai, nire bizkarrak eskertzen du.

10:24: EZEZEZ taldearen 'Kabakriba' abestia entzuten da orain bozgorailuan. Talde horrek puntualtasun osoz zabaldu zuen 18:00etan eszenatoki nagusia eta eguneko ikuskizun onenetako bat eskaini zuen. Euren atzean pantaila bat zuten, taldeek ikus-entzunezkoak jartzeko aprobetxatu zutena, baina bilbotarrek Palestinako bandera jarri zuten kontzertuaren hasieratik amaierara arte. Euren atzetik Amor Líquido talde madrildarra etorri zen, Primavera Sound jaialditik zuzenean etorrita, eta ondoren Holiday Ghosts britaniarrak, The Black Wizards portugaldarrak, lehen aipatutako Dummy kaliforniarrak (hauek



ere Bartzelonako jaialditik zuzenean etorri ziren) eta, azkenik, New Yorkeko A Place To Bury Strangers taldea aritu zen. Publiko guztiak ez zion eutsi euren proposamenari, baina beste batzuek dena eman zuten. Gitarrak hegan eta energia askea Donostian ere entzun zen zarata zoragarriarekin. Zoro batzuk, modurik onenean, anplifikadorearen eta bateriaren zati batzuk eszenatokitik atera eta plazaren erdian jarri zutelako, zarata horrekin hemen inguruan inoiz ikusi den ikuskizun ausartenetakoa eskainiz.

Puntu negatibo bakarra The Black Wizards jotzen ari zen bitartean bi lagun arteko borroka izan zen, beti dagoelako memeloren bat. Zorionez, berehala desegin zen eta argi geratu zen horrelako jarrerak jokoaz kanpo daudela. Plazako inor ez zen euren ikuskizun tamalgarria ikustera joan.

11:07: A Place To Bury Strangers taldearen 'Exploding Head' entzuten da orain bozgorailuan eta pentsatzen dut zoragarria izango litzatekeela Untzagan doako jaialdia egitea Euskal Herriko, estatuko eta nazioarteko taldeekin, eta bizilagunak horregatik ez eskandalizatzea, Legarreko musikarien elkartearekin antolatu genuen ikuskizunean bezala, non Satan gurtzea leporatu ziguten.



24. Eibarko Itzulian bi herenek itzuli osoa egin zuten, besteek erdia

Klub Deportiboko antolatzaileak oso pozik daude aurtengo Itzuliak izan duen erantzunarekin, guztira 521 lagun izan baitziren izena eman

zutenak eta “euretatik 100 baino gehiago Eibar kanpotik etorritakoak”. Izena eman zuten horietatik, bi herenek itzuli osoa egin zu-

ten, 34 kilometrokoa, herena buelta erdiarekin, 18 kilometrokoarekin, konformatu zen bitartean. Hasiera eta amaiera Depor pareak hartu zituen, goizeko 07:00etan sortu zen mendizale giro ederrarekin eta, behin proba amaituta, Deporrek tabernak eskainitako pasta platera eta edariekin, esperientzia partekatzeko aukera aprobetxatu zuten. Egun lainotua izan zen, “aproposa ibiltzeko”, eta bidean ere parte-hartzaileek aukera izan zuten frigoriforiora hartzeko kokatutako bi anoa postuetan; aurrekoari lotuta, antolatzaileek eskerrak ematen dizkiete “boluntario guztiei eta, bereziki, Gure Basoetxekoei euren txabola lagatzeagatik anoa postua bezala”.



Irteera orduan giro berezia sumatu zen Depor aurrean bildutako mendizaleen artean.

Historia handiko San Juan Sari Nagusia proba jokatu da domekan

Eibarko txirrindulari Elkarteak antolatutako junior mailako probaren 89. edizioa izango da domeka goizekoa, Gipuzkoako txapela ere jokoan izango den lasterketa. Parte-hartzaileek 96 kilometroko ibilbideari egingo diote aurre, tarte horretan Kalbarioko (62. kilometroan) eta Azkarateko (80. kilometroan) gainei aurre eginez. Proba goizeko 10:00etan abiatuko da T. Etxebarria kaletik eta Azitaineraino joango dira martxa neutralizatuan. Helmugan izango da aldaketarik, aurreko kadeteen proban bezala Urkizuk hartuko baitu lasterketaren amaiera (Untzaga plazan kontzertua dago eguerdian) eta, aurreikusitako ordutegiaren arabera, lehenengoak 12:25erako helmugaratzea espero da. Parte-hartze handia espero da, mailako Gipuzkoako txapela jokoan izango baita.



Tropelak Azitaindik San Prudentziorako bidea hartuko du, ondoren Oñatiko Zubillaga auzorajoa eta, handik bueltan, Maltzagara iristeko. Hor txirrindulariek Mutrikoraino joko dute eta, Kalbario eta Azkarate gaingiduta, Urkizuko helmugaren bila etorriko dira.

Ermuko txapeldunak Eibarkoari irabazizion futbol-zaletuan

Domekan Ermuan jokatuak futbol-zaletuaren Eibarko eta Ermuko ligetako irabazleen arteko lehia oraingoan argi erori zen bizkaitarren alde, Ermuko Dragones Negros 4-0 nagusitu baizitzaion Eibarko Malape Tabernari. Ermutarren gogleileak Dormus (hack-tricka lortu zuen, hiru golekin) eta Stiven izan ziren. Partidu horrekin futbol-zaletuak agur esaten dio denboraldiari.



Arrazola eta Markez atletak nagusi Gipuzkoako absolutuetan



Eibarko Klub Deportiboko Elene Arrazolak (*argaskian, podiumaren gorenean*) eta Kepa Markezek Gipuzkoako txapela jantzi zuten banakako eta klubaren arteko txapelketa absolutuetan: lehenengoak 100 metroko proban eta bigarrenak disko jaurtiketan. Horrez aparte, Parte-hartze Libreko Proban Maialen Zenarruzabeitia garaile izan zen xabalina jaurtiketan. Arrazolak denboraldiko marka onena egin zuen proban (12:11 segundu) beste bost taldekide ere izan ziren parte hartzen: bere seriea irabazi zuen

Elene Beitia, eta Naia Kapelastegi, Nerea Aizpuru, Farah Chajrane eta Ixone Bilbao.

Donostiako Anoetako minies-tadioan ere, distantzia ertaineko 1.500 metroko proban, Anwar El Hassouini bere serieko irabazle izan zen, urteko bere markarik onena lortuz (4:04:68). Eta, txapelketa berean, baina domekako jardunaldian, Kepa Markezek 200 metroko proban bere markarik onena lortu zuen (23:53), Maialen Zenarruzabeitia jauzi hirukoitzean parte hartzen zuen bitartean.

76. Deba Arroko Pilota Txapelketaren finalak domekan Astelenan

Domeka goizean, 11:00etan hasiko den jaialdian, erabakiko da Deba Arroko Pilota Txapelketaren 76. edizioko azken emaitza. Aurten Eibarko Klub Deportiboari egokitu zaizkion antolatze lanak modu horretan goia joko dute jokoan izango diren hiru finalekin. Soraluze enpresak babesten duen torneoan Deba Arroko zortzi pilota klubeta-



ko pilotariak hartu dute parte eta, behin ligaxkak amaituta, honakoak heldu dira final horietara, tartean gure herriko bi bikoterekin: kade-

teetan, Deporreko Aleix del Reyk eta Xuban Varonak osatutako bikoteak Oñatikoa izango du aurkari; jubeniletan, Aretxabaketako eta Bergarako bikoteek jardungo dute, nor baino nor; eta seniorretan iazko bikoteak izango dira berriro ere txapelaren bila, Deporreko Ibarra eta Conde (*argaskian*) eta Soraluzeko Atxotegi eta Balerdi, hain zuzen.



Juan Luis Baglietto Arrizabalaga

11. URTEURRENA
2014/06/16

"Zure irribarreak eta maitasunak gure bihotzean diraute"

MAITE ZAITUGU
- ETXEKUAK -





Antonio Oguiza Badaya

2025/06/06

"Betiko oroimenean geratuko da zure jakinduria isila, zure lanerako grina eta maite gaituzun modu bakarra"

- ETXEKUAK -



Bittor Astigarragak irabazi zuen Lehendakari Saria

Aurreko zapatuan Azpeitiko Floreagako bolatokian jokaturako Gipuzkoako 54. Hiru-Txirlo bola joko txapelketaren azken jardunaldian jokoan zegoen bolari guztien arteko Lehendakari Sarian azken denboraldian Elgetarekin jokatu duen Bittor Astigarraga eibartarra nagusitu zen. Tiraldi hortik kanpo, Gipuzkoako txapela ere beste elgetar baten buruak jantzi zuen, Jon Aransolo izan baitzen garaile, Floreagako Gorka Etxanizi hiru txirloren aldea aterata eta Elgoi-



barko San Migueleko Javier Osorori sei txirlokoa. Asola Berriko ordezkariak dagokienez, Ganix Rodriguez izan zen onena, sailkapen nagusiko seigarren postuan, eta

bere atzetik izan zuen Garikoitz Rodriguez, zortzigarrenena. Eta herrietako txapeladunen arloan, Bittor Ugarteburuk irabazi zuen sari hori Asola Berrikoen izenean.

Urbatekoek gogor dihardute lehiatzen denboraldi amaieran ere

Senior mailako bi taldeek euren maila eusteaz gain (talde nagusiak 2. Nazional Mailari eta bigarrenak Euskal Herriko 1. Mailari), jubenil

mailako taldeak ere bikain amaitu du Euskal Herriko Ligako bigarren postua eskuratzeko: Askartzaren atzetik, baina Waterpolo Navarra,

Portugaleteko Nautika eta Leioa bezalako klub indartsuen aurretik. Infantil mailako taldea hilaren 18tik 24ra Malagan jokaturako den Espainiako Txapelketarako sailkatu da eta, dagoeneko, estatuko 24 onenen artean dago. Alebin taldeak, berriz, Gipuzkoako Kopa irabazi du eta orain, kadete mistoarekin batera, Zaragozara joango da datorren astean, Polo Amigos Torneoa jokatzera.



Finalista Egunean 78 domina banatu ziren

Aurreko domekan Arraten ospatutako Eibarko Finalista Egunarekin amaitu zituzten Deporrekoko mendi batzordekoek 2024-2025 ikasturteko Haurren Mendi Irteerak. Guztira 78 haur izan ziren domina jaso zutenak, ikasturtean zehar bost mendi irteera edo gehiagotan parte



hartzeagatik. Aurtengo ikasturtea arrakastatsua izan da oso, 70 izan baitira, batzazbeste, txangoetan par-

tu hartu duten haurrak, aurreko edizioetako partaidaidetza nabarmen igota.

Boullosak final borrokatua irabazi zion Txutxori billarrean

Sergio Boullosak irabazi zuen aurreko zapatuan jokaturako hiru bandatako billarraren IV. San

Juan Saria, borrokatutako finalen Javier Gonzalez "Txutxo"-ri nagusituta. Finalerdietan Roblesek



Zaletuek gogo biziz jarraitu zituzten partidak eta, batez ere, final parekatua.

eta Alberdik amore eman zuten bi finalisten aurrean eta, modu horretan, orain arte ezagutzen ez zen finalaren aurrean geratu ginen; horrek aurretik interesa piztu bazuen, jokoaren garapenak ondo eutsi zion horri. Bestalde, promesa onenaren saria eta txapelketako takada onenarena, biak Txeleren eskuetara joan ziren. Giro bikaina izan zen txapelketan, eta aretoa lepo beteta izan genuen jardunaldi ikusgarrian. Bestalde, domeka honetan Euskal Ligako azken fasea jokatu da "Galeroseko Casinoan" eta bertan Casino Artista Eibarres-eko hainbat jokalaririk izango dira lehian.

SD Eibar Fundazioak agur esan dio LaLiga Genuine denboraldiari

Aurreko asteburuan Lezaman jokaturako jardunaldiarekin amaitu zuen LaLiga Genuinen parte hartzen duen SD Eibar Fundazioko taldeak aurtengo denboraldia. Jokaturako hiru partidutik, eibartarrek bana berdindu zuten RCD Ma-

llorca-rekin eta beste bietan amore eman zuten Cadiz CF (3-0) eta Valencia CF-ren (4-0) aurrean. Emaizta horiekin, SD Eibarrek Errespetua multzoko 19. postuan amaitu du denboraldia, 12 punturekin. LaLiga Fundazioak antolatzen duen txapelketaren zazpigarren edizioan talde armaginak Tarragonan, A Coruña, Burgesen eta Bilbon jokatu izan du eta, Lezaman egindako azkenean, esaterako, 1.200 kirolaririk gora hartu zuten parte balioak eta esperientziak elkartrukatze-ko.

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuartera
688 62 76 89
publizitate@etakitto.eus

FUNEUSKADI
Grupo Arizón

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

TANATORIO CREMATOPIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xoilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Ridebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Kiki, Koko eta Moko pailazoez agurtu dute ikasturtea Berbetan jaialdiarekin

Ikasturteari agurra egiteko, eta familiei begira, jaialdia antolatu zuen eguaztenean ...eta kitto! Euskara Elkartek. Kiki, Koko eta Moko pailazoez izan ziren Errebalen "Txondatatxondai, dibertsioa eta jai" ikuskizunarekin. Musika, dantza eta sorpresarik ez zen falta izan eta arratsalde dibertigarria pasa zuten haur zein helduek. Datozen asteotan, hala ere, ...eta kitto!-ren eskaintzak ez du erabateko etena izango. Datorren asteen, Berbetan programako berbalagunak Lizagasar sagardotegira joango dira eta Sanjuanak eta gero, Ongietorri programako familiak Zumaiara joango dira, itsasontzik flysch-az gozatzeko.

ARGAZKIAK



BIDEOA







Dantzari Eguna ospatuko da gaur arratsaldean Untzagan

Gaur 19:30ean hasiko da dantza emanaldia Untzagan. Urtero bezala, aurten ere dantzari ekijendearen aurrean erakutsiko dituzte Kezka Dantza Eskolan eta Kezka Dantza Taldean ikasitako dantzak. Bestalde, Kezka Dantza Taldeak kudeatzen duten Dantza Eskolan 2025-2026an jarduteko izen-ematea zabalik dago, nagusi zein haurrentzat (2021ean jaiotakoetatik aurrera). Izena emateko edo informazioa eskatzeko kezka@dantzan.com helbidera edo 605711429 zenbakira idatzi (Argazkia: Eibarko Udala).



“La Favorita” filma emango dute gaurko zine-forumean

LGBTI+ Kolektiboaren Askapen eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna gerturatzen doala-eta, Pagatzaren zine-forum feministan gai horri helduko diote. Gaur izango da saioa, 18:30ean Portaleko areto nagusian, eta Yorgos Lanthimosen *La favorita* film britainiarra emango dute. Jarraian solasaldia hasiko da. Sarrera librea eta doan da. Horrez gain, *Emakumeen Istorioak* bideo-forumeko hurrengo saioa martitzenezan izango da, 18:00etan Andretxean, eta bertan Marsha P. Johnson LGBT askapen mugimenduko aktibistari buruz arituko dira. Horretan ere sarrera doan eta librea izango da.



Kontzertu bereziarekin jantzitako txistulari-alardea

Eibarko lehen txistulari banda sortu zela 90 urte beteiko direla eta, hori ospatzeko Txistularien XXIII. Alardea egingo da domekan, 12:30ean Untzagan. Ekitaldi berezi horretan 150 musikari, dantzari eta korukide baino gehiago elkartuko dira, tartean Donostiako Orfeoia. Usartza Txistulari Taldeak Udalararekin lankidetzan antolatu duen kontzertuan Euskal Herriko hainbat tokitatik etorriko diren txistulariak arituko dira, Eibarkoekin batera, eta Eibarko Musika Eskolako txistu-ikasleek, herriko metal boskoteak, teklatuak, baxu elektrikoak, perkusioak, eta Kezka eta Neledantza taldeek ere hartuko dute parte. Garikoitz Mendizabalek zuzenduko du, eta estilo eta erritmo ezberdinetako obrak interpretatuko dituzte.



Dibujo eta Zeramika ikasleen erakusketa amaitzear dago

Ekainaren 17ra arte egongo da ikusgai Dibujo Udal Eskola eta Zeramika Udal Eskolako ikasturte amaierako erakusketa, Portalean. Bi eskoletako ikasleek, teknika eta diziplina artistiko ezberdinak erabilia, kurtsoan zehar sortu dituzten artelanak biltzen ditu erakusketa honek, eta astelehenetik domekata joan daiteke bisitan, 18:30etik 20:30era.



“Breaking Eibar” txapelketak beteko du bihar Untzaga

Breaking Eibar dantza urbanoen txapelketaren hamargarren edizioa jokatu da bihar, eta aurtien lehen aldiz Untzagan (harmailen aldean) izango da. Jardu-naldia 12:00etan hasiko da, *Breaking Kidz 1vs1 Under 16* modalitatearekin. 16:00etatik aurrera, sailkapene-rako probak hasiko dira (2vs2). Ekitaldiaren irekiera ofiziala 17:30ean izango da, The Funky Brother taldearen kontzertuarekin. Jarraian, 18:00etan, *Pentagon Battle Live Drums* ikuskizuna hasiko da; 18:30ean, 2vs2-ko final-zortzirenetako kanporaketak hasiko dira; eta 19:30ean *7 to Smoke Lucky Roulette* modalitatea jokatu da. Final laurdenak 20:00etan hasiko dira, finalerdiak ordu erdi geroago, eta finala, berri-z, 21:00etatik aurrera jokatu da (Argazkia: Eibarko Udala).



Astebururako hitzordu bikoitza antolatu dute Zai Zoin

Gaur 19:30ean Saia Goait Mutrikutik datorren taldearen kontzertua hartuko du Zai Zoi/EzDok tabernak (alderantzizko sarrera). Eta bihar, berri-z, We are apes, hello! taldearen txanda izango da, 20:00etatik aurrera.



Euskara ikastaro trinkoak Eibarko bi euskaltegietan

Eibarko Udal Euskaltegiak eta AEK Euskaltegiak B2 eta C1 mailetako azterketak prestatzeko ikastaro trinkoak antolatu dituzte udarako. Udal Euskaltegiak HABEren B2 eta C1 mailetako azterketa prestatzeko emango duen ikastaroa ekainaren 26tik uztailearen 23ra bitartean izango da. Klaseak aurrez aurre emango dira, baina online aritzeko aukera ere izango da. Ikastaroa gaintitzeak deialdi itxira aurkezteko aukera emango du. Eta AEK Euskaltegian ere euskara ikastaro trinkoak egiteko aukera egongo da, ekainaren amaieratik uztailearen amaierara arte (80 orduko ikastaroa izango da). Horrez gain, irailean ere ikastaro laburra eskainiko dute HABEren azterketako idazmen atala prestatzeko. Eta ikastaroez gain, AEK-ren udako barnetegiak ere zabalik daude uztailean, abuztuan eta irailean. Arduradunen berbetan, “azterketak prestatzeko barnetegiak, Euskal Herriko mendietan zehar egiten den barnetegi ibiltaria eta familia barnetegiak antolatzen dira”.

16 euro Batxilergoko ikasleentzat

Batean zein bestean, dirulaguntza berezia dago Batxilergoko (16-18 urte) ikasleentzat, eta C1 maila prestatzeko ikastaroa 16 euro soilik ordaindu beharko dute. Eta, Eibarren erroldatuta egonez gero, deskontuak daude. Udal Euskaltegian izena emateko epea ekainaren 20ra artekoa da, eta informazio gehiagorako 943700912 / 688698566 telefonoetara deitu edo euskaltegia@eibar.eus helbidera idatzi daiteke. Eta AEK-n 2025-2026 ikasturterako aurrematrikula egiteko epea zabaldu dute eta ekaina osoan zehar egiteko aukera dago. Datorren urterako aurrematrikula egiten dutenek lehentasuna izango dute taldeak osatzean, eta aurtengo prezioa aplikatuko zaie. Informazioa eskatzeko 940 20 13 79 zenbakira deitu, edo euskaltegiko bulegora (Sostoa-tarren, 1) joan daiteke.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

			5				3	
7		9	3					4
				6			5	1
		8	9		6		4	
	4		1		7	2		
4	8			2				
3					8	1		2
	2				3			

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

S
U
D
O
K
U


ZERTXOBAIT ZAILAGOA

		6			8	3	4	
3	8				9			5
	7			6				
2			4					9
		9		3		6		
7					2			3
				5			1	
4			9				7	6
	5	1	6			8		

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

irteera



L
A
B
I
R
I
N
T
O
A

sarrera

AURKITU 6 EZBERDINTASUNAK



Ekainak 13/19

BARIXAKUA 13

ZINE-FORUMA

18:30 Pagatxa emakume elkartearen zine-forum feminista: "La favorita" (Zuz. Yorgos Lanthimos). Sarrera doan eta librea. Portalea (areto nagusia).

DANTZARI EGUNA

19:30. Kezkaren dantza eskolako ikasleen ikasturte amaierako dantza emanaldia. Antolatzailea: Klub Deportiboa-Kezka Dantza Taldea. Untzaga (euri arriskuaz Errebal Plazan).

MUSIKA

19:30 Saia Goait taldearen kontzertua. Alderantzizko sarrera. Zai Zoi/EzDok taberna.

DANTZA

20:00 KOA Dantzaren ikuskizuna. 3 euro. Coliseo.

MUSIKA

21:30 Mugi Panderoaren kontzertua. Eibar BHI-ko Guraso Elkarateak antolatuta. Untzagan.

ZAPATUA 14

KALEAN EHUNTZEN

11:00/13:30 Kalean Ehuntzeko Eguna. Parte-hartzea libre, nahi duenarentzat. Altxoa emakume alargunen elkarteak antolatuta. Eibarko Bizikleta Plaza.

BOLO PALMA

12:00 XXXVII. Eibarko Hiria Bolo Palma txapelketa, Eibarko Casa de Cantabriako kideen artean. Ipuruako bolatokia.

BREAKING EIBAR

16:00/21:00 Eibarko X. Break Dance eta New Style Txapelketa. Untzaga.



BOTILTZAR

17:00/22:00 Alkohola eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentzioarako karpia. Untzaga.

ANTZERKIA

19:00 Kale-antzerkia: "Tavole", Zirkio Txosko taldearen eskutik. San Andres eliza inguruan.

MUSIKA

20:00 Waah!, We are apes, hello! taldearen kontzertua. Alderantzizko sarrera. Zai Zoi/EzDok taberna.

MUSIKA

23:00 Musika elektronikoa, hainbat DJ-rekin. Soba Kultur Elkartearen eskutik. Untzaga.

DOMEKA 15

TXIRRINDULARITZA

10:00 89. San Juan Sari Nagusia. Gipuzkoako Txapelketa (junior). Irteera Toribio Etxebarria kaletik. Helmuga Urkizun (12:20ak aldera).

INTERPRETAZIO ZENTROA

11:30/13:30 Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa zabalik. Arrate (aterpetxea).

TXISTULARIEN ALARDEA

12:30 Txistularien XXIII. Alardea. Parte-hartzaileak: Usartza Txistulari Taldea, Donostiako Orfeoia, Eibarko Musika Eskolako txistu-ikasleak, herriko metal boskotea, teklutua, baxu elektrikoa, perkusioa, eta Kezka eta Neledantza taldeak. Zuzendaria: Garikoitz Mendizabal. Untzaga.



ASTELEHENA 16

MANIFESTAZIOA

12:00 "Gutxieneko pentsioa = gutxieneko soldata. Gero arrakalarik ez". Eibarko Pentsiodunen Taldeak antolatuta. Untzaga.

MARTITZENA 17

BIDEO-FORUMA

18:00 Emakumeen Istorioak bideo-forum saioa: Marsha P. Johnson (LGBT askapen mugimenduko aktibista). Sarrera doan eta librea. Andretxea.

EGUAZTENA 18

MUSIKA

19:00 Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren emanaldia. Coliseo.

GIMNASIA ERRITMIKOA

19:00 Ipurua Gimnasia Erritmiko taldearen erakustaldia. Untzaga (eguraldi txarrekin, Errebal Plazan).

DANBORRADA

19:00 Danborradaren entsegua, haurrentzat. **20:00** Helduen entsegua. Beistegi eraikina (Bittor Sarasketa kalea).

EGUENA 19

BAKARRIZKETA KOMIKOA

18:00 "Bihotz, bi hots, bi txotx!", Garawi Cejotaren (Garazi San Martin Boj) eskutik. Doan. Andretxea.

MUSIKA

18:00 Juan Bautista Gisasola Musika Eskolaren emanaldia. Coliseo.

ERAKUSKETAK

Ekainaren 17ra arte:

- **DIBUJO UDAL ESKOLA eta ZERAMIKA UDAL ESKOLA**ko ikasturte amaierako erakusketa. (Portalea).

Ekainaren 27ra arte:

- **"BUNA: Isiltasun osteko ahotsak" argazki erakusketa, Egoaiziak antolatuta.** (Topaleku).

Ekainaren 30era arte:

- **"GU ERE BAGARA". Ines Bermejo eta Julen Nafarrete (Lagun Artean).** (Andretxea).

Irailaren 28ra arte:

- **"ACHA HERRAMIENTAS S.L. 85 URTEURRENA".** (Armagintzaren Museoa).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 14an: 22:30
- 15ean: 20:00
- 16an: 19:30

“Una función inesperada”
DRAMA



2023/AEB /101’
Zuzendaria: Tony Goldwyn
Aktoreak: Bobby Cannavale,
William Fitzgerald, Robert de Niro
Autismoa / Road Movie

2 ARETOA

- 14an: 17:00, 19:45, 20:00
- 15ean: 17:00, 20:00
- 16an: 19:30

“Las cuatro fantásticas”
KOMEDIA



2024/AEB /98’
Zuzendaria: Jocelyn Moorhouse
Aktoreak: Susan Sarandon,
Bette Midler, Megan Mullally
Lagunartekotasuna / Ezkontzak

ANTZOKIA

- 14an: 17:00, 19:45, 20:00
- 15ean: 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- 16an: 19:30

“La casa al final de la curva”
THRILLER



2024/Kanada /110’
Zuzendaria: Jason Buxton
Aktoreak: Ben Foster,
Cobie Smulders, Gavin Drea
Drama / Obsesio baten eragina

ANTZOKIA

- 14an: 17:00
- 15ean: 17:00

“Lilo y Stich”
UMEENTZAKO



2025/AEB /108’
Zuzendaria: Dean Fleischer-Camp
Aktoreak: Maia Kealoha, Sydney
Agudong, Zach Galifianakis
Zientzia-fikzioa / Extralurtarrak



Agur, Kala maitea.

Egunez gure eguzkia izan zara, eta gauez gure izarra. Familiakoek beti bihotzean eramango zaitugu; ez zaitugu sekula ahaztuko.



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORAE TA LANDARE NATURAE TA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera



Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak, **INHAR**, martitzenian 3 urte bete zenduaz eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AIORA!** Domekan 10 urte! Segi, oin arte moduan, bizitzaz gozatzen!



Zorionak, **INES**, astelehenian 3 urte beteko dozuz eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ENARA!!!** Martitzenian 9 urte bete zenduaz eta. Musu haundi bat famelixaren eta lagun guztien partez.



Zorionak, **LUKEN**, gaur 10 urte, mutil haundi! Mundiala zara eta segi horrela! Patxo haundi bat!



Zorionak, **LOREA**, bixar 27 urte beteko dozuz eta. Egunderrera pasau eta jasoeizu patxo potolo haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak, **MAIA**, hillaren 11n zure lehelengo urtetxua bete zenduan eta. Jan egingo zittugu! Aitxitxa eta amamaren partetik.



Zorionak, **ASIER!!** Gaur 4 urte egin dozuz eta. Jarraitu hain alai eta irribarretsu. Musu bat amatxo eta aiton-amonen partez.



Zorionak, **MIKEL!** Atzo 5 urte bete zenduaz eta. Jarraitu hain alaixa izaten. Musu haundi bat etxeko guztien partez!!!



Zorionak, **IKER!!** 7 urte bete dozuz gaur!! Munduko onena opa deustsugu! Besarkada bat aitta, ama eta Aneren partez!!



Zorionak, **UXUE!** Eguaztenian 7 urte egin zenduaz eta. Famelixa guztiaren partez. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, **LEIRE**, bixar urtiak beteko dozuz eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez. Ondo ondo ospatu!



Zorionak, **SUA** (domekan) eta **KEA** (bixar), urtiak beteko dozuez elako! Etxekuen partetik, 5 eta 2 belarri tirakada eta musu erraldoi bana!!!



Zorionak, **MALEN** (hillaren 9xan 7 urte beteta) eta **JONE** (domekan urtetxua egingo dozu)! Etxekuen partez. Asko maite zaittuegu, sorginak!



Zorionak, **UNAX** (hillaren 10ian 3 urte eginda) eta **AITXITXA** (hillaren 11kua). Musu potolo bat bixori, asko maitte zaittuen etxekuen partez.

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskakerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• Etxea alokagai Deban, uda guztirako. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 komun. 607440859.
• 2/3 logelako pisua bilatzen dut alokairuan, Eibarren edota inguruan. 607841549.
• Ez galdu Donostiako Aste Nagusia, gozatu giro apartaz! Atikoa alokagai terraza eta itsas bistekin, abuztuaren 8tik 24ra. Ondarreta hondartzatik oso gertu. 3 logela, bainugela eta egongela-jangela-sukaldea. Dena berrituta (wifia). Igogailuarekin. 688840712.
4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 646821678.
• Gizonezkoa eskaintzen da igeltseritza, pintura edota lorategi lanetarako. Baita nagusien zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 643160133.
• Euskaraz eta ingelesez C1 duen unibertsitate ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. 688605585.
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Interna. 642852854.

• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. 632061519.
• Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. 624416776.
• Administrazio eta Finantzak Graduko ikaslea eskaintzen da, ekainaren 1etik abuztuaren 31ra, administrari laguntzaile lanak egiteko. Esperientzia. 611433467.
• Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu eta beste edozertan laguntzeko. 631232412.
• Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 642084800.
4.2. Langile bila
• Emakumea behar da neskatila bat zaintzeko irailetik aurrera, lanaldi partzialerako. 669780187.
• Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika batean, astean jardun bat edo birako. Bidali CV: hortzklinika.4@gmail.com
• Emakume interna behar da, beste emakume bat zaintzeko. 671924724. Toñi.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• Neska eskaintzen da ingeles klaseak emateko. Sei urteko ikasketekin. Umeak ere zainduko litzuke. 615701749.
• LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com 943 203 903

AROTZAK



**ulmar
S.L.**
metaliko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnua: 943 12 13 07 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Aziltain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943-120108
www.irazabal.net

PLAGEN AURKA



PLAGANATURA
PLAGEN AURKARIKO ZERBITZUAK
www.plaganaturak.com
943 085 760
ELAGORRI



943-206776

Errekatsu Berri

BIZIGUNE A

Zure terrazan
afaltzea, hiriaren
erdialdea begiratzen
duzun bitartean,
305.000€-tik hasita



BEREHALAKO ENTREGA

AZKENEKO ETXEBIZITZAK

 **Loiola**



Informa zaitez
www.loiola.com
900 102 220